

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2015 AZA 24	
	SARRERA	IRTEERA
	2432	

**PARISKO ATENTATUEN AURREAN EH BILDUREN
MOZIOA**

Parisen izandako erasoetan 129 pertsona hilik eta 360 zaurituak izan ziren. Beste behin ere, herritar errugabeen heriotzak eragin dituen gertaera latzgarri baten aurrean gaude. Erabat salagarria eta arbuigarria den gertaera hain zuzen ere. Giza eskubideen urraketa larri honen aurrean, gertaerak sortzen duen egoneza eta larritasunaren gainetik sakoneko hausnarketak egitea funtsezkoa da.

Parisen eta Europa guztian gaur gaurkoz bizi den sufrimendua ez da mundu osoan bizi diren gatazketan bizi denarekiko ezberdina. Eguna joan eta eguna etorri, iragan ostiralean Parisen gertatua bezala, mundu guztian hainbat dira herritar errugabeen bizitzaren aurkako erasoak. Hainbat dira jatorri desbedinetako gerra eta gatazkak, sistematikoki giza eskubideak urratzen direnak.

Egoera guzti hauen aurrean oinarrizko irizpide batzuk argi izan eta norabie horretan urratsak ematea funtsezkoa da: Inork ez dezala indarkeria erabili errugabeen aurka, inork ez ditzala armak saldu bere etekinak handitzeko, eta inoren Nazioarteko politikak ez ditzala gatazka gehiago eragin. Herri eta pertsona guztien askatasunak baino ez du lortuko mundu osoan ditugun gatazka lazgarri guztiak gainditzea. Demokrazian sakontzea funtsezkoa da segurtasun gehiago izan dezagun. Eta ez segurtasunaren izenean demokrazia eta askatasunari mugak jarri.

Gertaeraren larritasuna kontutan hartuta ere, Parisen gertatutako erasoaren erantzuna giza eskubideetan eta oinarrizko irizpide demokratikoetan oinarritu behar dela aldarrikatzen dugu. Populazio zibilak modu bidegabean pairatu duen eraso ankerraren erantzuna ezin da inola izan neurri eta izaera berekoa. Eskubideen murrizketan oinarritutako salbuespen legeek demokrazia ahultzen dute eta ez dute inoren segurtasuna bermatzen.

Giza eskubideetan eta demokrazian oinarritutako gizarte ereduan sakontzea funtsezkoa da eta horren alde lan egin eta egunero borrokatzea funtsezkoa da, bai Euskal Herrian eta mundu zabalean ere. Ondorioz, mundu osoan gertatutako giza eskubideen eta oinarrizko printzipio demokratikoen aurkako eraso guztiak dira salatu beharrazioak.

Guzti honen aurrean Oñatiko Udalak honako ebazpen hau onartzen du:

- 1.- Udal honek, Pariseko erasoak irmoki salatu eta arbuiatzen ditu eta bere samina adierazi nahi die hilik edo zauriturik izan diren herritarrei eta haien familiei. Horrez gain gure babes eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu Frantziako estatuko herritarrei une larri hauetan.
- 2.- Udal honek, giza eskubideen eta oinarriko irizpide demokratikoen aurkako eraso guztiak salatzen ditu. Ondorioz, eskubideen murrizketa eta salbuespen legeetan oinarritutako erabakiek arazo konponbidea baino gatazken areagotzea besterik ez dutela sortzen adierazten du.
- 3.- Udal honek, Parisko eraso salatzeko eta giza eskubide guztien errespetua aldarrikatzeko mobilizatzaera dei egiten die herritarrei.
- 3.- Erabaki honen berri, herritarrei helaraztea erabakitzen du udal honek.



2015 eko azaroaren 24an